GOBERNU BATZARRA

2008. 02. 25

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Olatz Peon Ormazabal
Onintza Lasa Arteaga
0Andoni Iturzaeta Arbillaga

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko otsailaren 25ean, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-I.14 "Artzabaltza" Eremuko urbanizazio-Harrera/ Recepción urbanización área I.14 "Artzabaltza".

3.-Zelai ibaiaren ibilgua berreskuratzeko proiektua. Behin betiko onarpena./ Proyecto de recuperación del cauce del rio Zelai. Aprobación definitiva.

4.-EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko urbanizazio proiektuaren aldaketa/Modificación del proyecto de urbanización del área RE.5 "Prolongación Beotibar".

5.-EZ.7 "Gorostidi Voith" eremuko 2. Ju-Ko Hirigintza egikaritzeko hitzarmena sinatu ondoren aurkeztutako abala ordezkatzeko esakakizuna/Solicitud de sustitución del aval presentado tras la firma del convenio de ejecución urbanística de la U.E. 2 del área RE.7 "Gorostidi-Voith".

6.-Presoen familientzako 2007. urteko dirulaguntzak ematea.

7.- 1.zenbakia duen faktura-zerrenda.

8.- Plenoko gaiak:

-2008/239 alkatetza dekretuaren berri

ematea.

-Rondilla luzapeneko lurrazpiko (-1) errotaziozko aparkalekua kudeatzeko baldintza agiria.

1.- **Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko otsailaren 18an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-**I.14 "Artzabaltza" Eremuko urbanizazio-Harrera/ Recepción urbanización área I.14 "Artzabaltza".**

| | |
|---|---|
| Ikusita, I.14 "Artzabaltza" eremuko urbanizazioari buruz, Udal Ingeniariak egin duen txostena, eta honi buruz, Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta. | Visto el informe emitido por el Ingeniero Municipal, en relación con las obras de urbanización del área I.14 "Artzabaltza" y de conformidad con su contenido, así como con el dictamen de la comisión de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, |
| **E R A B A K I D U** | **A C U E R D A** |
| **LEHENA**.-I.14 "Artzabaltza" eremuko urbanizazio-harrera formalizatzea. | **PRIMERO**.- Proceder a la recepción de las obras de urbanización del área I.14 "Artzabaltza". |
| **BIGARREN**.- Udal Ingeniari den Jose M. Otaegi Lopetegi jaunari ahalmena ematea, Udal honen izenean dagokion harrera-akta sinatzeko. | **SEGUNDO**.- Facultar al Ingeniero Municipal, D. Jose M.ª Otaegi Lopetegi, para que suscriba, en nombre de este Ayuntamiento, la correspondiente acta de recepción. |
| **HIRUGARREN**-Urte bateko berme-epea ezartzea. Harrera akta sinatu eta biharamunetik zenbatuko da epe hori. | **TERCERO**.- Establecer un plazo de garantía de un año, a contar desde el día siguiente al de suscripción de la correspondiente acta de recepción. |
| **LAUGARREN**.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta aipatutak eremuko Urbanizazio obrak lagatzen dituenari. | **CUARTO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y al cedente de las obras de Urbanización del área citada. |

**3.-Zelai ibaiaren ibilgua berreskuratzeko proiektua. Behin betiko onarpena./ Proyecto de recuperación del cauce del rio Zelai. Aprobación definitiva.**

| | |
|---|---|
| Gobernu Batzarrak, 2007ko abenduaren 3an egindako batzarraldian, hasierako onespena eman zion, zenbait baldintzarekin eta aldaketekin, Zelai Ibaiaren Ibilgua Berreskuratzeko Proiektuari. | La Junta Local de Gobierno, en sesión celebrada el día 3 de diciembre de 2007, aprobó, con carácter inicial y con una serie de modificaciones y condiciones, el Proyecto de Recuperación del cauce del río Zelai. |
| Ondoren, proiektua jendaurrean egon da, 20 egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko. | A continuación, el Proyecto ha sido sometido a información pública durante 20 días, a fin de que puedan presentarse alegaciones. |
| Jendaurreko izapide horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu. | En el trámite de información pública no se ha presentado alegación alguna. |
| Ondorioz, Hirigintza Batzordeak, jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, | En consecuencia, de conformidad con el dictamen de la Comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, |
| **E R A B A K I  D U** | **A C U E R D A** |
| **LEHENA**.- Behin betiko onespena ematea Zelai Ibaiaren Ibilgua Berreskuratzeko Proiektuari ondorengo baldintzekin: | **PRIMERO**.- Aprobar con carácter definitivo el Proyecto de Recuperación del cauce del río Zelai, con el siguiente condicionado: |
| a) Ibarratik Tolosara doan kolektore adarraren proiektua egokitu egin beharko da Zelai ibaiaren proiektu honetara, beti ere, Igarondo eta Tolosana eremuetan onarturik dauden hirigintza plangintzak kontuan izanik. | a) El proyecto del ramal del colector que se dirige de Ibarra a Tolosa deberá adaptarse a este proyecto del río Zelai, teniendo en cuenta, en todo caso, los planes de urbanización aprobados para las áreas de Igarondo y Tolosana. |
| b) Ibarratik Tolosara doan kolektore adarraren obrak Zelai ibaiaren obra baldintzatzen duen neurrian eta bai batak bai besteak Zumardi Handiko, Igarondoko eta Tolosanako urbanizazio obrak baldintzatzen dituzten neurrian, aipatu hirigintza eta obrak departamentuko buruei | b) Es necesario señalar a los responsables del departameto de obras y urbanismo que se deberán coordinar las obras del ramal de colector Ibarra-Tolosa y del río Zelai, en la medida en que las primeras afecten a la segunda, y las dos, a su vez, a la urbanización de las áreas del Prado Grande, Igarondo y Tolosana. |

| | |
|---|---|
| koordinazio lanei buruz arduratu beharko dutela. | |
| c) Zubi berriaren eraikuntzaren inguruan hitzez harturiko konpromisoak (gaur egun dagoen zubia ordezkatzeak izango lukeen kostua beregain hartzea) Eusko Jaurlaritza eta Udalaren arteko hitzarmen batetan jaso beharko dira. | c) Los compromisos verbales adoptados sobre la construcción del nuevo puente (asumir el costo de la sustitución del puente existente actualmente) deberán ser formalizados en un convenio entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento. |
| d) Zubi zaharra babestu beharko da obran zehar. | d) El puente viejo deberá estar protegido durante la ejecución de las obras. |
| e)Zumardi Handiko landaretza (proiektuaren arabera eliminatzen dena izan ezik) eta eraikitako elementuak babestu beharko dira obran zehar. | e) Se protegerán durante las obras la vegetación y los elementos construidos del Prado Grande (salvo lo eliminado conforme al proyecto). |
| f) Obrak gauzatu aurretik dagokion txosten arkeologikoa egin beharko da Igarondoko burdinolaren inguruan. | f) Se elaborará, previamente a la ejecución de las obras el informe arqueológico relativo a la ferrería de Igarondo. |
| g) Ibilgu berriak potentzialki kontaminatutako lurrak hartzen dituen neurrian, eremu honetan lur mugimen-durik egin aurretik 1/2005 Legean zehazturiko tramiteak bete beharko dira. | g) En la medida en que el nuevo cauce ocupe suelo potencialmente contaminado, antes de efectuar cualquier movimiento de tierras en dicha área deberá procederse a la tramitación de lo establecido por la Ley 1/2005. |
| **BIGARREN**.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari. | **SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo. |

**4.-EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko urbanizazio proiektuaren aldaketa/Modificación del proyecto de urbanización del área RE.5 "Prolongación Beotibar".**

| | |
|---|---|
| Gobernu Batzarrak, 2005eko ekainaren 20an, Construcciones Aitz-Ondo, SA-k sustatutako honako proiektu hau onartu zuen: EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" | La Junta Local de Gobierno, en sesión celebrada el día 20 de junio de 2005, aprobó el Texto Refundido del Proyecto de Urbanización del área RE.5 "Prolongación Beotibar", promovido por |

| | |
|---|---|
| eremuko Urbanizazio Proiektuaren Testu Bateratua. | Construcciones Aitz-Ondo, S.A. |
| Geroztik, aipatutako eremu horretako Barne Erreformarako Plan Bereziaren aldaketa bat onartu zen, eremu osoan, aparkaleku erabile-rarako, sotoko bi solairu eraikitzeko aukera emanez.<br>Ondorioz, Urbanizazio Proiektua egokitu egin behar izan da. | Con posterioridad, se aprobó una modificación del Plan Especial de Reforma Interior de dicha área, a fin de autorizar, para uso de aparcamiento, la edificación de dos plantas de sótano en la totalidad de su ámbito.<br>En consecuencia, se ha procedido a la modificación del Proyecto de Urbanización. |
| Ikusita Juan José Gurrutxaga Arkitektoak idatzi eta 2007ko abenduaren 20an bisaturiko urbanizazio proiektua, eta proiektu horri buruz udal arkitektoak idatzi duen txostena. | Visto pues, el proyecto de urbanización redactado por el Arquitecto D. Juan José Gurrutxaga, visado con fecha 20de diciembre de 2007, y el informe emitido al respecto por la Arquitecta Municipal. |
| Era berean, kontsideratuz, proiektu honetan planteaturiko aldaketak neurri txikikoak direla, eta ondorioz jendaurreko izapidea ez dela beharrezkoa, Gobernu Batzar honek, Hirigintza Batzordeak, jaulkitako diktamenarekin bat etorriz,aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, | Y asimismo, considerando que las modificaciones proyectadas son de escasa entidad, por lo que no es preceptivo su sometimiento a información pública, esta Junta de Gobierno, a propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, |
| **E R A B A K I D U** | **A C U E R D A** |
| **LEHENA**.- Construcciones Aitz-Ondo, SA-k sustatzen duen honako proiektu honi onespena ematea: EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" eremuko Urbanizazio Proiektua (2. Aldaketa). Juan José Gurrutxaga Chacon Arkitektoak idatzi eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, 2007ko abenduaren 20an bisaturiko testua, hain zuzen ere. | **PRIMERO**.- Aprobar el Proyecto de Urbanización (2.ª Modificación) del área RE.5 "Prolongación Beotibar, prresentado por Construcciones Aitz-Ondo, S.A. y redactado por el Arquitecto D. Juan José Gurrutxaga Chacón( visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro con fecha 20 de diciembre de 2007). |
| **BIGARREN**.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta Construcciones Aitz-Ondo, S.A.ri. | **SEGUNDO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a Construcciones Aitz-Ondo, S.A. |

**5.-EZ.7 “Gorostidi Voith” eremuko 2. Ju-Ko Hirigintza egikaritzeko hitzarmena sinatu ondoren aurkeztutako abala ordezkatzeko esakakizuna/Solicitud de sustitución del aval presentado tras la firma del convenio de ejecución urbanística de la U.E. 2 del área RE.7 “Gorostidi-Voith”.**

| | |
|---|---|
| Larramendi Madalen Promozioak, S.L.k, EZ.7 “Gorostidi-Voith” eremuaren % 72,90aren jabe bezala, aipatu eremuko hirigintza egikaritzeko hitzarmen baten proposamena aurkeztu zuen 2007ko apirilaren 4an. | La entidad mercantil Larramendi Madalen Promozioak, SL, como propietario en su día del 72,90 % del suelo del Área RE 7 “Gorostidi Voith”, presentó el 4 de abril de 2007 una propuesta de convenio de ejecución urbanística para dicha área. |
| Gobernu Batzarrak 2007ko irailaren 3an egindako bilkuran behin betiko onespena eman zion EZ.7 “Gorostidi-Voith” eremuko Hirigintza Egikaritzeko Hitzarmenari honako baldintza honekin: sinatzeko orduan, edo aldez aurretik, urbanizazio kargen zenbatekoaren % 7ko abala formalizatzea edo entregatzea (2/2006 Legeko 160.6 artikulua), zehatz-mehatz, 3.278.209,83 €-ko abala. | La Junta de Gobierno, en sesión celebrada el 3 de septiembre de 2007, acordó aprobar definitivamente el Convenio de Ejecución Urbanística del Área RE 7 Gorostidi-Voith, con la condición de que en el momento de la firma o previo a ella se formalizara o entregara el aval del 7 % de la cuantía de las cargas de urbanización (artículo 160.6 de la Ley 2/2006), en concreto, un aval de 3.278.209,83 €. |
| Hirigintza egikaritzeko hitzarmen hori 2007ko irailaren 4an sinatu zuten inplikatutakoek eta bai Larramendi Madalen Promozioak, S.L.k bai UTE Arramelek zegozkien abalak aurkeztu zituzten, lehenak 2.458.657,37 €-koa eta bigarrenak 819.552,46 €-koa, hau da, guztira 3.278.209,83 € abalatuta. | Con fecha 4 de septiembre de 2007 se firmó entre las distintas partes implicadas el citado convenio de ejecución urbanística y tanto Larramendi Madalen promozioak, SL, como UTE Arramele presentaron sus correspondientes avales por un importe de 2.458.657,37 € y 819.552,46 €, respectivamente, ascendiendo la cantidad total avalada a 3.278.209,83 €. |
| Hitzarmen Batzarra eratu eta Birpartzelatze Proiektua tramitatu eta gero, 2008ko urtarrilaren 28an eta otsailaren 8an, bi aldeek eskatu dute zegozkien abalak ordezkatzea zenbateko txikiagoko beste abal batzuekin, beren iritziz, abal haiekin bermatutako obligazio batzuk dagoeneko bete dituztelako. | Tras la constitución de la Junta de Concertación y la tramitación del correspondiente Proyecto de Reparcelación, con fechas 28 de enero y 8 de febrero de 2008, ambas partes han solicitado la sustitución de los avales correspondientes por otros de menor cuantía, pues entienden que parte de las obligaciones garantizadas por las mismas han sido cumplimentadas. |

| | |
|---|---|
| Ikusirik honetaz Hirigintzako teknikariak egin duen txostena, etaHirigintza Batzordeak proposatutakoarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,<br><br>**E R A B A K I   D U**<br><br>**<u>LEHENA</u>**.- Ez onartzea eskaera, diktamen honetako azalpenen atalean adierazitako abalen murrizketarena. Halere, behin urbanizazio lanak hasita eta ikusten denean haien exekuzio eta asebetetasun maila, berriro aipameneko eskaerak aztertzeko aukera planteatzeko modua egon daiteke.<br><br>**<u>BIGARREN</u>**.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta Larramendi Madalen Promozioak, S.L.k, | Así pues, visto el informe emitido al respecto por el Técnico de Urbanismo, así como el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,<br><br>**A C U E R D A**<br><br>**<u>PRIMERO</u>**.- Desestimar las solicitudes de reducción de aval referidas en la parte expositiva de este dictamen, sin perjuicio de que, una vez iniciados los trabajos de urbanización propiamente dichos y a tenor del grado de ejecución y satisfacción ejecutiva de los mismos, pueda plantearse, en un futuro, un nuevo análisis de lo solicitado.<br><br>**<u>SEGUNDO</u>**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Urbanismo y a la entidad mercantil Larramendi Madalen Promozioak, SL,. |

**6.- <u>Presoen familientzako 2007. urteko dirulaguntzak ematea</u>.**

Gaia erabaki gabe geratu da, Gizarte Zerbitzuetako departamentu buruari txosten bat eskatu ahal izateko.

**7.- <u>1.zenbakia duen faktura-zerrenda.</u>**

Kontuhartzailetzak 1. faktura-zerrenda, 46.972,66 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**<u>LEHENA</u>.-** Aipatutako 1. faktura-zerrenda onartzea.

**<u>BIGARREN</u>.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari

**8.- <u>Plenoko gaiak</u>:**

Hurrengo Osoko Bilkuran pasako diren gaiaren berri eman da:

**-2008/239 alkatetza dekretuaren berri ematea.**

**-Rondilla luzapeneko lurrazpiko (-1) errotaziozko aparkalekua kudeatzeko baldintza agiria.**

Gainera hitz egiten da komenigarria izango dela beste bi mozio hauek ere gai zerrendatik at tratatzea.

- **Martxoaren 8an Emakumeen eguna ospatzen dela eta, berdintasun arlotik aurkeztuko den mozioa.**

**-Erakunde-Adierazpena, Saharar errepublika arabiar demokratikoaren aldarrikapenaren 32. urteurrena dela eta.**

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10:00etan.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**